

Eibar'en 16-10-56.

Michelena'tar Luis Yauna.
Donosti.

Agur Yaun ori;

Arantzazu'ko biñera aren atzen egunean esan nizun bezela, Elgoibar'en euskei-ikastola bat sortu nai dute. Oñetako zuen itz'la eman diegu orko ordezkari bezela geran ezkeru.

Nire adiskide dan Francisco Juaristi da, ikastola-sortze ofen nagusi; eñian Pako izenarekin ezagutzen dute. Yaun au apaiz birekin izan zan bein gure ikastolan. Irurak alkar'ekin zirala gure irakast'era ikusiz, ikastola auei buruz mintzatu giñan, beren gorabera guztiak azalduz. Eman genizkien darabilzkigun arau eta bideak eta pozik itzuli ziran etxera.

Apaiz Yaun bi auek irakasle egingo dutenak dira, Pako onen. bitartez larogettamabost (95) gramatika saldu ditugu. Joan dan astean, bertan befogetamabost eraman dizkigu gizon yator'onek.

Ainbeste elezti saldu, ainbeste bira ta bira ikastolak dirala-ta, ikaragefizko sufumufu bat zabaldu da Elgoibar osoan. Danak gai berdiña omen darabilte; ikastola sortzea. Irurogei edo ei dira ikasle asmotan asi nai dutenak. Oñ buruz mintzatuko naiz ur'engoko nire idazki batean, ziur ziur zenbat ikasle eta nola diyoazten esanaz.

Guk eman genien agiritxo arekin gertu izan ziran esteko. Alañaña, eñiko Alkateak deitu omen 'io Pako Juaristi'ri eta ia noren baimenagaz asi bear diran esan bide dio. Onek yakiñerazi zizkion antolatze-bideak eta ala ere etzan lasai gelditu alkatea, itxura danez. Ynstituto ortako agiri bat bear luketela esan ei zun. Zuzen bidali bat eta abar.

Ainbeste traba, ezgura eta aitzeki ikusirik, Pako onek zuen agiri bat nai du. Gurearekin konporme izanañen uste-gabe lelo oiek izanik, zuen izenpe edo sei'otutako idazki bat nai luke. Aitatu zazu or, eta len-baitien igofi guri, Elgoibar'era bialdu dezagun, arin nai bai dute.

Eibar'ko ikastolak ondo ari dira beren bideetan. Yoan zan igandean txango bat egin genuñ Urbia'ra.

Gai au bereizi dala beste batzuk ere esan nai nizkizuke. Lendabizikoa. Antzeko gaia da baña Gazteiz'ko gauza bati

buruz. Uri ontan euskelzale asko da, asko. Alegiñak egiten dituzte, al dan bezela eta al dan tokian ixilka-mixilka ariz, ez dute azkartasunik-eta. Ezta iñoren babesik ere. Lenoko batean orko irakasle dan batekin izketan ari nantzala orixe esan zidan: Ez dutela ez baimenik eta ez ezer. Au oso tamalgafia da. Non da ba gure "Monumento Nacional"? Ez ote legoke biderik, Euskaltzandi edo Seminario "Julio Urkijo" ren bitartez Gazteiz'en laguntzeko, batonbaten itzala emanaz? Aztartzeko diña dan gaia iruritzen zait.

Bigafena.

Aita Azkue ta Donosti Jaunaren omenaldia batera egin bear bide da. Ez ote obe banan egin? Azkue Jauna'rena Bilbao'n eta Aita Donosti'rena Donostin? Edo biak batera dirala baña bi yai egiaz, esan ditudan uri bi oietan, bata Bilbao'n eta beste bat Donostin. Onela yai oiei bi aadiz bizi-erazten diegu, bi aldiz bizi yaya. Yai aundia eginbear litzake. Orkesta, Olaeta jaunaren taldea, txistulari onak eta abar izanik yai ofetan naiz da zar-bidea garestiago izan. Gogoan daukat oraindik Ariaga'ko atzen yai ura, zein edefa. Asmo au ez da nirea, bilbotar gazte batena baizik. Onetzaz, askorekin itz egin dut eta ondo iruditu zale. Atzenengoz Aita Agirretxe Prantziko'tafakin-eta mintzatu nintzan lengo batean eta oso ondo legokela esan zidaten. Garaiz gaudenezkero aztartzekoa dala esango nuke, gai au.

Irugafena.

Yaso genun Doix'tafaren esker-idazkia. Berger Jaunarena. Guztiz arituta gelditu giñan gazte ofen euskeraz idazteko dotoretasuna ikusiz. Ze txukun, denbora ain gutxian ikasita. Txit atsegin izan zitzaigun bere poza gure bezua apala artu zula-ta. Ikasi dezala ikasi, euskeraz, etxeakoak ez ezik kanpokoak egin bearko digute. Gafantsitsua bai-da gizon yakintsu oiek gure izkuntza ikasten yartzea.

Eta gaurkoz bukatu beafean naiz, ez bai dut ezer geiago, esatekorik.

Eta afen da afen Elgoibar'ko nai ori arin betetzeko eskatuz, biotz-biotzez agur zintzo batekin agurtzen zaitu Eibar'tar ikasle onek.

Francisco Juaristi

Oaia. Ortik, Elgoibar'erako dan idazkia bialdu bear didazunean, Francisco Juaristi'n izenean egin, au bai da uri ortako ikastola oien buru edo nagusi. Eta zurea arin izanarte.

Eskutitz au amaituta bezela utzi dutanaren, beste oar bat egitea
 deritzait, beste beñi batzuk yaso bai ditut oñezkero.
 Elgoibar'ko alkatea, uri ortako Jefe Locala da.
 Euskel-irakasketak asiak dira. Apaiz biok irakasle dirala. Batak be-
 fogeitamar ikasle ditu ta besteak ogeitamar omen.
 Pako Juaristi Zaragoza'n da amabos bat egun igaroz.
 Elgoibar'ko Jefatura Local ori Eibar'koaren mendean dago. Jefe oñek
 Pako'rekin itz egin ondoren irakasketak asten utzi zion, baña esana
 dutan agiri cri bear lukela.
 Guri etzitzaigun ifioiz ere, bat bera ere, galdetzera etofi ez ertzain
 eta ez ifior.
 Elgoibar'ko Jefatura emengoaren mendean egonik, guri ezer etofi ez
 eta, zela ba, oiei, oñelako aitzekiak ?
 Orko Jefe Local ori ondo konpontzen omen da Pako nire adiskidearekin,
 baña.... orixe.
 Orain, eztakit ba, irakasketarako duten gela bata, "falange" koa dan
 edo. Utzi egiten bai diote. Onetzaz adie aziko dizut garbi azalduz.
 Beste gela, mendigoizaleen Club Morkaiko izan bear du.
 Orain nire galde-gai batzuk;
 Ez al daukagu guk zuen izenean, naikoa izen eta itzal ?
 Edo, nai ta naiezkoa ote, zuen agiri bat ?
 Esanak esanaren, ez ote genitzake yafaitu bear, ezeren belduñik ez du
 gulako, eta ez dutelako nondik eldu ?
 Eñiz eri yoaten geranean, ikastola zabalketan, poliki poliki, beti
 bear ote dugu zuen agiri bat edo ez ote naikoa gurea ? aitzekirik ez
 dagoen tokian beintzat.
 Erantzungo didazu len-bait-len. Nire ustez, uri ortan, txotxolo renbat
 yoango zan ipuiekin, naastatzera.
 Zurea izanarte ba ta, agur. Eskeñikasko.

Aspintar Lirauel